

Klima Aldaketa Hego Euskal Herrian

Egungo egoera eta aurre egiteko
proposamenak



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

IPCCk hartu beharreko neurrien urgentziaz ohartarazi du	3
Hego Euskal Herriko emisioek gobernuen utzikeria erakusten dute	3
3. ELAren proposamena etorkizun bizigarri baterako.....	6

1. IPCCk hartu beharreko neurrien urgentziaz ohartarazi du



Pasa den apirilaren 4an IPCCk (Nazio Batuen erakunderako Klima Aldaketaren inguruko adituen lantaldea) bere azken txostena argitaratu zuen, non hurrengo urteetan berotegi efektuko gasak (BEG) murrizteko hartu beharreko neurriak zehazten dituen. Ez da berria txosten honen inguruan ELAk duen interesa, klima aldaketaren inguruko mundu mailako adituek emandako datu eta gomendioetan oinarritzen baikara gure proposamenak egiteko.

Azken txosten hau, politika publikoak garatzen dituztenei zuzendua dago, eta besteak beste honakoak esaten ditu:

- 2010-2019 epean BEG isuriak historiako handienak izan dira.
- Klima aldaketaren ondorio kaltegarrienak ekiditeko ezin dela gehiago itxaron neurriak hartzeko.
- 2025erako BEG emisioek goia jo beharko dutela, eta hurrengo bi hamarkadetan modu esanguratsuan gutxitu beharko direla.
- Neurri egokiak hartzen ez badira planetaren tenperatura 2100 urterako 3,2 gradu igoko dela.
- 2019ko emisioak %43an murriztu beharra azpimarratu dute. Hauetatik %87a industria eta energia sektoreetan eta gainontzeko %13a lehen sektorean.
- Erregai fosilen erabilera murrizteko helburuak zehaztu dituzte 2019ko datuak erreferentzia hartuta: ikatza %95, petrolio %60 eta gasa %45.
- Deskarbonizazio prozesua posible dela ekoizpen prozesuak energia berriztagarrian oinarritzen badira.

2. Hego Euskal Herriko emisioek gobernuen utzikeria erakusten dute

IPCCren datu eta gomendioak ikusita, Hego Euskal herrian dugun egoeraz gogoeta egitea ezinbestekoa da. Eta horretarako EAE eta Nafarroako BEG emisioak aztertu ditugu.



Azken hamarkadan EAE eta Nafarroan ez da emisio murrizketa esanguratsurik izan. Nahiz eta politika publikoek klima aldaketaren aurka egiten dutenaren propaganda ugari jaso, benetako egoerak argi erakusten du aurrerapenik eza.

IPCCren gomendioen arabera, eta Europar Batasunak hartutako konpromisoen arabera, 2020rako emisioak %20 jaitsi behar ziren (1990 urtea oinarri hartuta). EAE eta Nafarroan ditugun datuak 2018 eta 2019 urteetakoak dira hurrenez urren, eta 2020koak falta zaizkigun arren, murrizketa datuak oso eskasak izan dira:

BEG emisioen bilakaera EAEn 1990 urtea oinarri hartuta:
(inportatutako elektrizitateak igorritako emisioak barne)

1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
100	102	102	99	102	109	97	104	110	120	126	117	126	123	123


2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
122	123	123	120	108	104	97	98	90	90	93	89	94	91	89

BEG emisioen bilakaera Nafarroan 1990 urtea oinarri hartuta:
(esportatutako elektrizitateak igorritako emisioak barne)

1990	2005	2007	2015	2016	2017	2018
100,00	178	171	130	136	138	140

Europar Batasunak agindutako murrizketak bete ahal izateko, 2020ko datua 80 izan beharko litzateke, baina errealitatea oso urrun dago. 2019An EAE 89an zegoen eta 2018an Nafarroa 140an. Atera daitekeen ondorio bakarra hau da: ez da nahikoa egin BEG emisioak murrizteko. Eta hurrengo urteetarako hartutako konpromisoak are eta zorrotzagoak dira: 2030erako %55 murriztu behar dira. Orain arteko joera eta neurri eskasekin jarraitzen bada, helburu hau ere ez dela beteko ondoriozta daiteke.


Sektore bakoitzak duen pisua BEG emisioetan ezberdina da. Ondorengo grafikoetan argi ikus daiteke zein sektore diren BEG emisio gehien dituztenak, eta beraz, non hartu behar diren neurriak:



(* sektore energetikoa = emisio zuzenak + inportatutako elektrizitatearenak)

EAEn garraioa eta sektore energetikoa dira BEG emisio gehien eragiten dituztenak, emisio guztien %67,44a. Industriak ere neurriak hartu beharko ditu %18,21etik jaisteko. Beraz sektore hauetan hartu behar dira neurri zorrotz eta azkarrenak.

Nafarroako datuek ere antzekoa adierazten dute:



(* esportatutako elektrizitatea kontuan hartuta)

Sektore energetikoa eta industria dira hurrenez urren emisio gehien dituztenak, eta beraz, eraldaketa azkarrena behar dutenak, emisioen erdiak baino gehiago igortzen baitituzte. Garraioa da neurriak hartu behar diren beste sektorea.

3. ELAren proposamena etorkizun bizigarri baterako

Datu hauek ikusita egoeraren urgentzia begi bistakoa da, baita neurriak hartzeko beharra ere. Honen harira, azken hilabeteetan bai EAEn eta bai Nafarroan Klima Aldaketa Legeak landu dira eta aipatu ditugun datu kezagarri hauei erantzunik ez die emango ez Nafarroan onartu den Legeak, ez eta EAEn prestatzen ari direnak. IPCCren exijentzia mailatik oso urrun geratuko dira, ez baitute klima aldaketa eragiten duen garapen eredu kolokan jartzen, ez eta sistema eraldatzeko neurri eraginkorrik hartzen. Baina ELAk argi du trantsizio energetikoan eta ekonomiaren eraldaketa ekologikoan dagoela gakoa, eta horregatik ondorengo neurriak hartzea exijitzen dugu:

- Kontsumo energetikoa modu esanguratsuan murriztu, efizientzia energetikoa hobetu eta modu arduratsuan energia berriztagarria sortzea.
- Parke eoliko eta fotovoltaikoen eraikuntzan hausnarketa bat egin behar da, eta bitartean moratoria bat ezarri.
- Bultzatu behar den eredu energetikoa azpiegitura handietatik urrundu eta diseinu deszentralizatu eta deskontzentratu batean oinarritu behar da.
- Autokontsumoak pisu handiagoa izan behar du.
- Garraio publiko kolektiboa da bultzatu beharreko garraio eredu.

- Abiadura Handiko Trena bezalako azpiegiturek ez dute lekurik eta zentzurik eredu honetan, trenbide sare publiko eta soziala da bultzatu beharrekoa.
- Merkantzientzat ohiko trenbidea egokitu behar da.
- Herrien arteko komunikazioa hobetzeko ildoari jarraituz, behar beharrezkoa da autobus zerbitzu eraginkorrak izatea, energia berriztagarriak erabiliko dituztenak eta pertsonen beharrei erantzungo diotenak.
- Ezinbestekoa da ekonomia birkokatzea, globalizazioak eta internazionalizazioak ekarri duen gehiegizko mugikortasuna eta honen ondorioak saihesteko.
- Elikadura burujabetza lortzeko neurriak hartu behar dira, CO2 emisioak xurgatzeaz gain, ekonomia birkokatze eta osasuna, ingurumena eta azken batean, bizitza erdigunean jartzeko tresna paregabea delako.
- Industriako hainbat azpisektorek, energia eta materialetan duten gehiegizko kontsumoagatik edo duten berotegi efektuko gasen emisio handiengatik birdimentsionatu egin beharko dira.
- Industriaren eraldaketak dakarren enplegu galerari aurre egiteko, beste sektore batzuk garatu behar dira, enplegu jasagarriak sortuz: berriztagarriak, garraio kolektiboa, elikadura burujabetza, edo hondakinen kudeaketa iraunkorra esaterako.

Hego Euskal Herriko politika publikoetan ez dugu aldarrikatzen dugun eredu aldaketarik ikusten. Enpresa pribatuek bultzaturiko proiektu eta azpiegitura handiak dira egunero bultzatzen dituztenak, eredu suntsitzaile hau iraunarazten dutenak. Ez dute gizarteak behar duen eraldaketa bultzatzen. Trantsizioa ez da egingo betiko hazkundearen paradigma jarraituz, hainbat arlo eta sektoretan desazkundera eman beharko da bidezko eraldaketa posible izateko.

Ekonomiak eta gizarteak bidezko trantsizio ekologiko bat behar dute, justua eta demokratikoa, inor kanpoan utziko ez duena. Langileen eta gizartearen mesederako egingo dena eta ez interes ekonomikoen mesederako. Horregatik, ELAk ez du utziko trantsizio hauek langileen kontura modu bidegabean aurrera eraman daitezzen.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA